

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA LORTU DUTENEN LAN-MUNDURATZEA

Euskal Herriko langabeei zuzendutako “Enplegurako Prestakuntza” deialdia

2018an hezitako pertsonak – Lan Egoera 2019ko Urrian



LANERATZEARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMA



ZER DIRA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAK?

Euskal Herrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatu eta kudeatzen du Enplegurako Lanbide Heziketa. Bi prestakuntza espezialitate mota daude:

- **Formakuntza egiaztagarria** (titulu ofizial bat lortzen da): **Profesionaltasun-Ziurtagiria**.
- Formakuntza ez egiaztagarria (ez da titulu ofizial bat lortzen): honekin prestakuntza jasotzen duen pertsonak arlo jakin bateko ezagutzak eta gaitasunak hobetzen ditu.

Profesionaltasun-Ziurtagiria dokumentu ofizial bat da, Estatu osoan onartua; eta ondorengoa egiaztatzen du: pertsona batek Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean jasotako lan-jarduera bat garatzeko beharrezkoak diren lanbide-gaitasun guztiak dituela.

Profesionaltasun-Ziurtagiriak bi bidetatik lortu daitezke:

- Prestakuntza bidez: Profesionaltasun-ziurtagiriaosatzen duten moduluak gaindituta
- Lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formalak aitortuta:

Profesionaltasun-ziurtagiriak 26 lanbide-familiatan taldekatzen dira; eta familia horien barnean, era berean, ziurtagiriak hiru mailatan banatzen dira: 1, 2 eta 3. Maila ezberdin hauetara apuntatzeko, gutxieneko ikasketa batzu eskatzen dira. Horrela, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria egiteko ez da ikasketa maila berezirik eskatzen; eta, aldiz, 3. mailakoak egiteko Batxilerra edo Erdi Mailako F.P. eskatzen da.


Ikastaroaren (PZ) iraupena 6 eta 12 hilabete artekoa izaten da (enpresako praktiken modulua barne). Horrek esan nahi du titulu horiek lortzeko, beste ikasketa mota batzuk egiteko baino denbora gutxiago behar dela.

Informazio gehiago: [LANBIDE-PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAK](#)

IKERKETA HONEN EZAUGARRI NAGUSIAK

- ✓ 2019ko urrian **telefonoz egindako inkesta**
- ✓ **Inkestatutakoak:** 2018. urtean (baita 2017ko abenduan eta 2019ko urtarrilean ere) kurtsoa bukatu eta **Profesionaltasun Ziurtagiri** bat lortu dutenak:
 - ✓ **Pertsona tituludunak, guztira:** 5.997
 - ✓ **Lortutako erantzun-maila:** % 74,7

KRONOLOGIA



P.Z. LORTZEN DUTEN PERTSONEN BANAKETA SEXUAREN ARABERA

FAMILIA PROFESIONALAK	PERTSONAK GUZTIRA	%	EMAKUMEA	emakumezkoen % familiar	GIZONA	gizonezkoen % familiar	EMAKUMEZKOEN % L.H. ARAUTUAN (2018ko PROMOZ)
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	1.645	% 27	1.250	% 76	395	% 24	% 78
MERKATARITZA ETA MARKETINA	661	% 11	370	% 56	291	% 44	% 51
FABRIKAZIO MEKANIKOAK	596	% 10	70	% 12	526	% 88	% 6
TURISMOA ETA OSTALARITZA	516	% 9	278	% 54	238	% 46	% 42
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	450	% 8	384	% 85	66	% 15	% 63
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	291	% 5	90	% 31	201	% 69	% 35
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	262	% 4	64	% 24	198	% 76	% 7
IRUDI PERTSONALA	255	% 4	233	% 91	22	% 9	% 96
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA	186	% 3	8	% 4	178	% 96	% 4
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	177	% 3	78	% 44	99	% 56	% 70
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	152	% 3	6	% 4	146	% 96	% 5
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK	143	% 2	48	% 34	95	% 66	% 22
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	139	% 2	8	% 6	131	% 94	% 3
OSASUNA	89	% 1	32	% 36	57	% 64	% 77
NEKAZARITZA	87	% 1	15	% 17	72	% 83	% 18
IRUDIA ETA SOINUA	81	% 1	29	% 36	52	% 64	% 26
ARTE GRAFIKOAK	69	% 1	46	% 67	23	% 33	% 46
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	59	% 1	5	% 8	54	% 92	% 11
ENERGIA ETA URA	37	% 1	0	% 0	37	% 100	% 10
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	36	% 1	6	% 17	30	% 83	% 43
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	29	% 0	26	% 90	3	% 10	% 92
KIMIKA	24	% 0	18	% 75	6	% 25	% 49
ITSASOA ETA ARRANTZA	13	% 0	0	% 0	13	% 100	% 2
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK GUZTIRA	5.997	% 100	3.064	% 51	2.933	% 49	

FAMILIA HAUTAN EMAKUMEZKOAK GEHIENGOA DIRA LH ARAUTUAN (emakumeen presentzia > %90)

FAMILIA HAUTAN EMAKUMEZKOAK ASKO DIRA LH ARAUTUAN (emakumeen presentzia %60-%90)

FAMILIA HAUTAN GIZONEZKOAK ASKO DIRA LH ARAUTUAN (emakumezkoen presentzia %10-%40)

FAMILIA HAUTAN GIZONEZKOAK GEHIENGOA DIRA LH ARAUTUAN (emakumezkoen presentzia < %10)

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRI “EZAGUNENAK”

TITULUDUN GEHIEN DITUZTEN PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAK	FAMILIA PROFESIONALAK	PERTSONA KOPURUA	%
- Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea	GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	938	% 15,1
- Eraikin eta lokaletan gainazalak eta altzariak garbitzea	GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	385	% 6,2
- Enplegurako Lanbide-Heziketako Irakaskuntza	GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	164	% 2,6
- Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea	GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	91	% 1,5
- Biltegiko jarduera lagungarriak	MERKATARITZA ETA MARKETINA	205	% 3,3
- Merkataritzako jarduera lagungarriak	MERKATARITZA ETA MARKETINA	196	% 3,2
- Salmenten merkataritza-kudeaketa	MERKATARITZA ETA MARKETINA	112	% 1,8
- Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	FABRIKAZIO MEKANIKOA	183	% 3,0
- Elektrodo estalizko eta Tig bidezko soldadura	FABRIKAZIO MEKANIKOA	192	% 3,1
- Administrazio-kudeaketako jarduerak	ADMINISTRATZIOA ETA KUDEAKETA	144	% 2,3
- Bezeroarekiko harremanetako administrazio-jarduerak	ADMINISTRATZIOA ETA KUDEAKETA	95	% 1,5
- Administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako eragiketa osagarriak	ADMINISTRATZIOA ETA KUDEAKETA	90	% 1,5
- Toki irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	104	% 1,7
- Sukaldaritzako oinarritzako eragiketak	TURISMOA ETA OSTALARITZA	103	% 1,7
- Osasun-garraioa	OSASUNA	86	% 1,4
- Pertsona gehien dituzten Profesionaltasun-Ziurtagirien batuketa (15 titulazio)		3.088	% 49,8
- Gainontzeko Profesionaltasun- Ziurtagiriak		2.909	% 50,2

PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRI “OSPETSUENAK”

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza eskaintzen du 23 lanbide-familiatan. Horietatik hiru familiek, *Zerbitzu Soziokulturalek, Merkataritza eta Marketinak eta Fabrikazio Mekanikoak* prestakuntzaren ia erdia hartzen dute.

Ziurtagiria lortu duten 5.997 pertsonetatik erdiak gizonezkoa da eta beste erdiak emakumezkoa.

Ziurtagiria lortu dutenen %78a bertakoa da eta %22a atzerritarra.


Gizonezkoek eta emakumeek, profesionaltasun-ziurtagiria aukeratzerakoan, Lanbide Heziketa arautuan jarraitzen duten joera berbera jarraitzen dute. Dena den, aldaketa txiki batzuk ikusten dira familia profesionalak eta sexuaren arabera portzentaietan, non generoen arteko aldea leuntzen den. Horrela, Fabrikazio Mekanikoari dagokionez, Lanbide Heziketa arautuan % 6 dira emakumeak; aldiz, profesionaltasun-ziurtagirietan, % 12. Informatika eta Komunikazioak familian % 7 dira emakumeak Lanbide Heziketan, eta ziurtagirietan aldiz % 24.

Bestalde, lanbide-familiei erreparatu ordeztu profesionaltasun-ziurtagirien mailara jaiste bagara, ikusten da 15 ziurtagirik titulazio guztien % 50a hartzen dutela. Eta 15 horietatik pertsona gehien biltzen dituen *Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea* da. Izan ere, ziurtagiri hori nahitaezkoa da egoitzetan zaintzaile gisa lan egiteko.



Aipatzeko da, baita ere, *Txirbil-harroketaren bidezko mekanizazioa eta elektrodo estalizko eta Tig bidezko soldadura* ziurtagiriek, industria-makinako langile gisa eta soldadurako profesional gisa egiaztatzen dutenak, 4. eta 5. lekuan daudela, 183 eta 192 pertsonarekin, hurrenez hurren.

FROGATUTAKO IKASKETA MAILA PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA HASI AURRETIK (I)

Titulatutako pertsona guztiak




- Unibertsitatea
- Erdi edo Goi Mailako LH
- Derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa
- Ikasketarik gabe



Profesionaltasun-ziurtagiria lortzen dutenen % 62k (3 pertsonatik 2k) ikasketa hauek hasi aurretik aurkeztzen duten titulurik altuena batxilergokoa da. Emakumeen multzoa aztertuta, ikasketa hauek soilik dituztenen ehunekoa 7 puntu jaisten da gizonekiko. Beraz, emakumeek batez beste formakuntza hobea dute.


FROGATUTAKO IKASKETA MAILA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIA HASI AURRETIK (II)

Aurretiazko ikasketak. Pertsona titulatatu guztiak



- Unibertsitatea
- Erdi edo Goi Mailako LH
- Derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa
- Ikasketarik gabe

Aurretiazko ikasketak nazionalitatearen arabera




Atzerritarren artean, % 11 bakarrik aurkezten da profesionaltasun-ziurtagirietara FPko edo Unibertsitateko aurretiazko formakuntza batekin; gainerako % 89ak gehienez ere Batxilerra dauka.


Bertakoen kasuan PZ hasi aurretik FP edo Unibertsitateko ikasketan dituzten pertsonen kopurua % 46raino igotzen da.

PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA DUTEN PERTSONEN ADINA

Tituludun guztien banaketa adinaren arabera



Nazionalitatearen arabera adinaren banaketa




Enplegurako prestakuntzak ez ditu taldeak adinaren arabera diskriminatzen; alderantziz, beste prestakuntza-eskaintza batzuetan agertzen ez diren 40 eta 60 urte bitarteko kolektiboek errazago dute prestakuntza hauetan sartzea.

Atzerritarren kolektiboaren barruan, enplegurako prestakuntza 20 eta 49 urte bitarteko pertsonetan kontzentratzen da, eta 30-39 urteko tarte nabarmentzen da.

Bertako pertsonen kasuan, enplegurako formakuntza 20-59 urte bitartekoetan ematen da gehienbat. Horrela, 50-59 urte arteko pertsonen ikasleen % 22a osatzen dute.

LANGABEZIAREN BILAKAERA DENBORAN ZEHAR





Formakuntza hasi aurretik, titulatuak % 27a lanean ari zen eta % 73a langabezian zegoen.

Ziurtagiria lortu ondoren, % 47a lanean ari zen; horietako batzuk lehendik ere lanean zeuden (ikasten ari ziren bitartean), baina beste batzuk langabezia egoera batetik zetozen. Bestalde, ziurtagiria lortu ondoren, pertsonen % 46 langabezian zegoen; hemen ere, lehenago batzuk lanean zeuden eta beste batzuk langabezian (formakuntza garaian).

Profesionaltasun-Ziurtagiria lortu eta 16 hilabetera (batez beste) lanean ari diren pertsonak % 56ra igotzen dira, % 32 langabezian daude eta % 12 ez aktibo egoeran.


P.Z. GARAIA EGINIKO PRAKTIKEK IZANDAKO ERAGINA ENPLEGU BAT LORTZERAKO ORDUAN



Praktikek formakuntzaren arrakastaren % 66 azaltzen dute. Ziurtagiria lortu ondoren, lanean ari diren 5 pertsonatik 3k enplegua lortu dutela uste dute enpresetan praktikak egiteko derrigorrezko moduluari esker.

ENPLEGUAREN KALITATEA (I)

Kontratu mota – Pertsona landunak



Inkesta egiteko unean pertsona landunak hartuta, lautik batek kontratu mugagabea du sinatuta.

2019. urtean Euskal Herrian kontratu mugagabeak lortu zituzten pertsonak % 29 izan ziren.

Inkestatutako pertsonen artean, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen portzentajea kopuru orokorraren antzekoa da.


ENPLEGUAREN KALITATEA (II)

€€€ - garbi 14 ordainsaritan

Batezbesteko soldata lanaldi osoan

1.125 €

Soldata tarteak lanaldi osoan




€€€ - garbi 14 ordainsaritan

Batezbesteko soldata lanaldi murriztuan

634 €

Soldata tarteak lanaldi murriztuan




Lan egiten dutenen % 33k borondatezkoa ez den lanaldi murriztuan lan egiten du, batez beste 26 ordu astean.


Profesionaltasun ziurtagirietan soldaten batez bestekoa bai lanaldi osoan eta bai lanaldi murriztuan Lanbide Heziketa arautuan titulatu direnen antzekoa da, laneratzeari buruzko ikerketan lortutako emaitzaren arabera.

ENPLEGUAREN KALITATEA (III)

PZrekin lotutako enplegua –
pertsona landunak



Enpleguarekiko gogobetetzea (0tik 10era)



Lanean ari diren pertsonen ia erdiak dio bere ziurtagiriarekin zerikusia duen enplegua duela, eta horiek beraien enplegua nahiko positibo baloratzen dute. Bestalde, beren ikasketarekin zerikusirik ez duten enplegua dutenek, beren enplegua okerrago baloratzen dute.

ENPLEGUAREN KALITATEA – FAMILIA PROFESIONALAK (I)


FAMILIA PROFESIONALAK	LANGABEZIA TASA	LAN EGONKORRA	LANALDI MURRIZTUA (ez borondatezkoak)	SOLDATA LANALDI OSOAN	SOLDATA LANALDI MURRIZTUAN	ZERIKUSIA DUEN ENPLEGUAREN %	PZk ENPLEGUA LORTZEN LAGUNDU DU
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	% 38,9	% 31,8	% 37,0	1.095 €	614 €	% 48,4	% 23,6
KIROL-JARDUERA FISIKOAK	% 27,3	% 36,4	% 53,7	1.242 €	606 €	% 44,6	% 44,8
ARTE GRAFIKOAK	% 61,7	% 47,1	% 38,9	1.127 €	894 €	% 5,6	% 5,9
MERKATARITZA ETA MARKETINA	% 43,2	% 29,0	% 32,5	1.100 €	565 €	% 41,7	% 28,1
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	% 36,6	% 35,1	% 7,0	1.119 €	351 €	% 39,7	% 24,8
FABRIKAZIO MEKANIKOA	% 34,1	% 25,5	% 7,7	1.183 €	721 €	% 52,1	% 31,6
TURISMOA ETA OSTALARITZA	% 39,3	% 36,9	% 36,5	1.061 €	599 €	% 48,2	% 29,6
ENFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOA	% 42,8	% 34,7	% 15,6	1.110 €	502 €	% 38,8	% 18,0
INSTALACION Y MANTENIMIENTO	% 34,8	% 19,4	% 9,6	1.218 €	618 €	% 52,1	% 34,1
IRUDI PERTSONALA	% 44,7	% 33,7	% 51,8	910 €	502 €	% 27,4	% 15,2
ERUDIA ETA SOINUA	% 43,5	% 46,2	% 44,0	876 €	576 €	% 23,1	% 8,2
ELIKAGAIEN INDUSTRIA	% 31,1	% 33,7	% 31,7	1.128 €	642 €	% 45,2	% 40,3
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	% 62,5	% 25,0	% 33,3	1.017 €	527 €	% 45,5	% 19,4
SANIDAD	% 37,3	% 21,6	% 22,2	1.301 €	816 €	% 40,5	% 27,1
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	% 33,8	% 31,3	% 24,6	1.143 €	619 €	% 44,7	% 39,4
ZERBITZU SOZIOKULTURALAK	% 28,3	% 28,8	% 45,2	1.108 €	678 €	% 62,3	% 42,9
TEXTIL CONFECCION Y PIEL	% 62,5	% 33,3	% 33,3	995 €	419 €	% 16,7	% 11,1
IBILGAILUEN GARRAIOA ETA MANTENTZE-LANAK	% 44,7	% 34,8	% 17,4	1.172 €	452 €	% 19,6	% 26,7
GUZTIRA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAK	% 36,1	% 30,2	% 32,8	1.125 €	634 €	% 49,2	% 31,7

Portaera okerragoko familiak

Portaera hobeko familiak

* Titulatutako pertsona kopuru txikia duten familiak ez dira ageri taulan

ENPLEGUAREN KALITATEA – FAMILIA PROFESIONALAK (II)



ENPLEGUAREN KALITATEA – FAMILIA PROFESIONALAK (III)

Aipatutako irizpideak kontuan hartuz, emaitza onenak eskaintzen dituzten familia profesionalak :

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

Azaldutako pertsona inkestatuen langintza nagusiak:

- *Ospitaleko erizaintzako laguntzaileak*
- *Etxeko zainketa pertsonaleko langileak*
- *Bulego, hotel eta antzeko establezimenduetako garbitzaileak*

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK

Azaldutako pertsona inkestatuen langintza nagusiak:

- *Kirol-jardueretako irakasleak*
- *Bainuzain sorosleak*

ELIKAGAIEN INDUSTRIAK

Azaldutako pertsona inkestatuen langintza nagusiak:

- *Denda eta biltegietako saltzaileak*
- *Okinak, pastelgileak eta gozogileak*

FABRIKAZIO MEKANIKOA

Azaldutako pertsona inkestatuen langintza nagusiak:

- *Soldatzaileak y oxiebakitzaileak*
- *Makina-erremintako doitzzaileak eta operadoreak*

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

Azaldutako pertsona inkestatuen langintza nagusiak:


- *Segurtasuneko zaindariak laguntzaileak eta antzekoak, armatuta joateko baimendu gabeak*
- *Bulego, hotel eta antzeko beste establezimenduetako garbitzaileak*

IRIZPIDEAK


- Okupazio-tasa
- Enpleguaren egonkortasuna
- Lanaldi osoko edo borondatezko lanaldi murriztuko enplegatua
- Lanaldi osoko soldata
- Zerikusia duen enpleguaren %
- Profesionaltasun-ziurtagiriak enplegua aurkitzen lagundu du

EGINDAKO PRESTAKUNTZAREN BALORAZIOA

Zer eragin izan du zure bizitzan
profesionaltasun-ziurtagiria egiteak?



Formakuntza mota hau egitea
gomendatuko zenuke?



ONDORIOAK

- Enplegurako prestakuntza ikastaroetan parte hartu duten pertsonen laneratze prozesuaren lehen kontu-ematea; hauen lan-merkaturatzearen ezaugarriak, kontuan izanik:
 - Tasa nagusiak
 - Lan egoeraren trantsizioak
 - Lotutako praktiken garrantzia
 - Kontratuen tipologia
 - Lanaldien tipologia
 - Soldata
 - Bat datorren enplegua
 - Enplegurako prestakuntzaren balorazio pertsonala
- Enplegurako prestakuntzaren laneratze prozesuaren jarraipena, L.H. eta unibertsitateko graduatan ematen den maila berean kokatzen da. Horiekin, LANBIDEK formakuntzatik lan-merkaturako trantsizioari buruzko informazio sistema bat du, Europan puntakoa dena.
- Prestakuntza honek ahalbidetzen du 23 lanbide-arlotan kualifikatzea, honako familia hauen eskaintza nabarmenduz: Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, Merkataritza eta Marketina, Fabrikazio Mekanikoa, Administrazioa eta Kudeaketa, Segurtasuna eta Ingurumena, Turismoa eta Ostalaritza, eta Osasuna, horiek % 50a osatzen dute.
- Prestakuntza mailako esparruan, Enplegurako Prestakuntzak ahalbidetzen du kualifikazio baxuko pertsonak prestatu daitezen; izan ere, partaideen % 62 oinarritzko ikasketekin heldu baitziren.

ONDORIOAK

- Ez ditu emakumezkoak eta gizonezkoak diskriminatzen, eta partaidetza orekatua da sexuaren arabera.
- Adin helduko pertsonen presentzia altua da. Profesiolasun-ziurtagiria lortzen dutenen % 51k 40 urte baino gehiago ditu, eta % 22k 50 urte baino gehiago.
- Parte-hartzaileen lan-egoeran aldaketa esanguratsuak eragiten ditu. Prestakuntza hasterakoan, parte-hartzaileen % 73 langabezian zeuden; ziurtagiria lortu eta 16 hilabetera % 32 bakarrik zegoen langabezian.
- Prestakuntza honi lotutako praktikak oso garrantzitsuak dira. Parte-hartzaileen % 30ek uste du horiei esker lortu duela enplegua, edota, lagundu dietela lehendik zeukatena mantentzen.
- Enpleguaren kalitateari dagokionean, lau osagarri garrantzitsu azpimarratuko genituzke:
 - % 26 lan-merkatuan dago kontratu mugagabearekin
 - % 66k lanaldi osoan lan egiten du
 - Lanaldi osoko soldataren batez bestekoa (garbia 14 ordainsaritan) 1.125 eurokoa da
 - % 49 lortutako profesionaltasun-ziurtagiriarekin zerikusia duen enplegu batean ari da lanean
- Formakuntza-eskaintza hauek egiteko gomendio orokorra % 93koa da.

ONDORIOAK

Ziurtagarria den prestakuntzaren jarraipen-eragiketa honek ematen dituen datuek aukera ematen dute laneratze-emaitzen ikuspegi objektiboa izateko. Horiek ikusita, enplegurako prestakuntza politika aktiboen modu nagusietako bat da, eta adierazle askotan unibertsitateko eta lanbide-heziketako graduen prestakuntzarekin alderatu daiteke.

Esan behar da kualifikazio nabariko formakuntza baten aurrean gaudela, produkzio sistemaren eskakizunei oso ondo egokitzen zaiona.

Nabarmendu behar da prestakuntza mota hori (profesionaltasun ziurtagiria) jasotzen duten pertsonen gehienbat formakuntza-maila baxua dutela, eta lan merkatuak exijitzen dituen eskakizunetatik urrun daudela. Horregatik, beraientzat prestakuntza ziurtagarria lan-merkatuan sartzeko bide malgu eta balioanizduna da. Formakuntza hau gabe, kasu askotan, lanetik baztertuak izateko arriskuan egongo lirateke.